



### **Funtsezko jarduerak**

Aguretxek zerbitzu bat eskaintzen du. Horretarako, zenbait jarduera egin behar ditugu.

Gure enpresak kanpoko beste erakundeekin hitzartutako produktu eta zerbitzuak jaso behar ditu, gurearekin hasi baino lehen. Adibidez bulego materiala eta wifia.

Horren ostean, gure ekintza desberdinak antolatu behar ditugu gure momitoreekin, agureentzako egokiak direla eta entretenigarriak direla bermatzeko.

Hortaz gain, bidai agentziarekin harremanetan jarri behar gara txangoak antolatzeko, ahalik eta interesgarrien eta ekonomikoki hoberen diren aukerak baloratzeko.

Azkenik, egindakoaren emaitzak aztertzen ditugu zertan hobetu behar dugun ikusteko, aurrera pausoak emateko asmoz.

## **Kostuak**

Aguretxek zenbait kostu izango ditu hilabetero, aztertu ditzagun.

Alde batetik kostu finkoak izango ditugu, hala nola alokairua. Nahiz eta lokala oso prezio onean alokatzeko aukera izan, kostu finko altuena izango da. Hortaz gain ura eta argindarraren gastuak kontuan izan behar ditugu, hilabetero hasiko direla estimatzen ditugunak. Ordenagailuak erabiliko ditugunez, wifia-ren prezioa ordaindu beharko dugu hilabetero. Publizitatea eta webgunearen mantentzea ere izango dira gastuak. Langileen soldatak kostu finkoen alderdian sartzea erabaki dugu, nahiz eta etorkizunari begira monitore gehiago kontratatzeke asmoa dugun.

Bestalde, gure zerbitzua betetzeko beharko ditugun kostu aldakorrak daude. Hauek, diru-sarreraren antzera, bezero kopuruareen arabekoak izango dira. Hemen, adibidez, bulego materiala azpinmarratu dezakegu.

Hurrengo taulan lehen hilabeteko gastuak adierazi ditugu: